

## XXI MANIFIESTO UNITARIO

LA FORTALEZA DE LA UNIDAD

12 DE MAYO 2023



DES FUNDAMENTALES RESULTADOS ENCUESTA ASOCIACIONES XXI Manifiesto FM-SC-EM Mayo 2023



SISTEMA PÚBLICO SANITARIO-SOCIAL

CALIDAD-EQUIDAD-ACCESIBILIDAD

LA FORTALEZA DE LA UNIDAD

DES FUNDAMENTALES RESULTADOS ENCUESTA ASOCIACIONES XXI Manifiesto FM-SC-EM Mayo 2023



UNIDADES DE TRATAMIENTO MULTIDISCIPLINAR

LA FORTALEZA DE LA UNIDAD

DES FUNDAMENTALES RESULTADOS ENCUESTA ASOCIACIONES XXI Manifiesto FM-SC-EM Mayo 2023



FORMACIÓN CONTINUADA PROFESIONALES

LA FORTALEZA DE LA UNIDAD

DES FUNDAMENTALES RESULTADOS ENCUESTA ASOCIACIONES XXI Manifiesto FM-SC-EM Mayo 2023



INVESTIGACIÓN

LA FORTALEZA DE LA UNIDAD

DES FUNDAMENTALES RESULTADOS ENCUESTA ASOCIACIONES XXI Manifiesto FM-SC-EM Mayo 2023



UNIVERSIDAD

LA FORTALEZA DE LA UNIDAD

DES FUNDAMENTALES RESULTADOS ENCUESTA ASOCIACIONES XXI Manifiesto FM-SC-EM Mayo 2023



COLABORACIÓN

PROFESIONAL ↔ PACIENTE

LA FORTALEZA DE LA UNIDAD

DES FUNDAMENTALES RESULTADOS ENCUESTA ASOCIACIONES XXI Manifiesto FM-SC-EM Mayo 2023



REIVINDICACIÓN DE DERECHOS

LA FORTALEZA DE LA UNIDAD

DES FUNDAMENTALES RESULTADOS ENCUESTA ASOCIACIONES XXI Manifiesto FM-SC-EM Mayo 2023

## XXI. MANIFESTUA

FIBROMIALGIAren eta NEKE KRONIKOAREN SINDROMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA 2023ko MAIATZAK 12

**FIBROMIALGIAren eta NEKE KRONIKOAREN SINDROMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA** dugu gaur eta, beste behin ere, **MANIFESTU BATERATU** batean elkartu ditugu gure ahotsak, **2003an adostu genuenari jarraikiz, bi gaixotasun horiek erabat normalizatu eta ikusarazteko helburua elkarrekin lortzeko.**

**Eskerrak** ematen hasi nahi dugu adierazpen hau. Lehenik eta behin, gaixotasun horien borrokan **aitzindari eta lider izan diren pertsonei**, jende askoren **gogoia eta itxaropena batuz elkarrekin sortu baitzituzten laguntza eman eta aldarrikapena egiteko**. Bigarrenik, **elkarrekin beraie, federazioei eta koalizio nazionalari** ere eman nahi dizkiegu eskerrak, egunero-egunero eskaintzen baitiete denbora bazkideei eta, beraz, kalteak jasaten dituzten guztiei; **gabeziei erantzuten diete, bihotzeko mina arintzen dute eta borroka egiten dute informazio, diagnostiko, arreta, formakuntza eta ikerketa hobeak izateko.**

Era berean, **osasun arloko profesionalei, adituei, ikertzaileei...** ere eman nahi dizkiegu eskerrak, beren ezagutza, ahaleginak, denbora eta prestigioa eskaini baitituzte gaixotasunok **hobeto ezagutu eta bikaintasunez tratatu ahal izateko**. Izan ere, gaixotasun horiek beren sorburua ikusezin bihurtzen dute eta tratamenduei itzuri egiten diete, baina ez dute etenik mina eta nekea eragiten eta **egunero erakusten digute haien alderik ankerrena.**

Horrez gain, **hainbat erakunde eta instituziori** —eta zenbait administraziori— ere eskertu nahi diegu babesa ematea, gure auziaren aldeko elkartasun-ekintzak antolatzea, kontzientziak astintzea eta gure erakundeei ahotsa ematea, baita Osasun eta Gizarte Sistemaren axolagabekeriari eta gabeziei aurre egiteko antolatzea ere. Horiei guztiei **gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu.**

Baina, era berean, irmo goratu nahi dugu gure ahotsa, **Osasunaren Mundu Erakundeak gure gaixotasunak aitortu eta hogeita hamar urte baino gehiagora**. Urte hauetan guztietan, ilusio eta bizi-proiektu asko utzi behar izan ditugu alde batera. Malko asko isuri dira familian edota senideengatik. Etsipen asko izan da tratatu diskriminatzailea edota bidegabekeria soziala jasateagatik.

Egia da **indartsu eta erresiliente bihurtu gaituen sarea ehundu** dugula guztion artean. Izan ere, gure gaixotasunak etengabe behartzen gaituzte gure bizitzetan aldaketa handiak egitera, gauza txikiak balioestera eta gure “nekea” konpartitzen duten kideekin elkartasuna izatera.

Nekea bi zentzutan: alde batetik, gure gaixotasunak eragiten diguten neke fisiko eta mental handia eta, bestetik, gure eskubideak aldarrikatzeko etengabeko borroka ekartzen diguna. Ez genuke behartuta egon beharko etengabe eta betirako **borroka hau** mantentzera, **bere fase guztiekin: etsipenetik itxaropenera, itxaropenetik desengainura, adore faltara, frustraziora... eta berriro borroka eta itxaropenera.**

Borroka eta itzaropena, bestalde, elkarbanatu egiten ditugu beste gaixotasun batzuk pairatzen dituztenekin ere, besteak beste **Sentikortasun Kimiko Anizkoitza eta Elektrohipersentikortasuna**. Pertsona horiei gure elkartasuna adierazi nahi diegu, ezin hobeto ulertzen dugulako gaixotasunak onartzeko borrokak dakarren zama astuna. Izan ere, gaixotasunok hain ulertuak edo objektibagarriak izan ez arren, aintzat hartuak izan behar dira.

Gure manifestuaren 21. edizio honek **ALDARRIKATZAILEA** izan behar du berriro ere, **Osasun Sistema Nazionalaren Kalitate Planari dagokionez**. Gaixotasunok **normalizatzea** oso urruti dago oraindik baina, gainera, **Autonomia Erkidegoen arteko desberdintasun handi eta larriek bere horretan jarraitzen dute**. Gure lehenengo adierazpenetako batean esan genuen **gaixotasunak ez daukala nazionalitaterik edo ez duela nazionalitaterik izan behar**, eta, horregatik, berriz ere interpelazioa egiten diegu **Osasun Arretaren eta Eskubide Sozialen** arduradun politikoei eta kudeatzaileei, **Zuzentasunaren, Irisgarritasunaren, Kalitatearen eta Justizia Sozialaren alde** egin dezaten. **Paziente gisa ditugun eskubideak** onartzea eskatzen diegu, eta gure eta administrazioaren artean **Bitartekaritza** egiteko organoak eskura izatea, gure eskubideak errespetatzen ez direla uste dugun kasuetan.

Ondo egotea da gure helburu nagusia, bizitza normala egin ahal izatea maite ditugunekin, lanean, lagunekin... Horregatik, urtero eskatzen dugu gure kasua **ez ahazteko**; eta **ikerketa** bultzatzea. **Prebentzioa, diagnostikoa eta kalitatezko arreta** sustatzea; **profesional guztiek gure gaixotasunen inguruko prestakuntza** izatea; **diziplina anitzeko tratamendu-unitateak** sortzea, **Fibromialgia eta Neke Kronikoaren Sindromea unibertsitatean sartzea**; eta, beharrezkoa den kasuetan, **laneratzeko laguntza** programak eta **bidezko prestazio sozialak** izatea.

Bestalde, etengabe gure alde lanean diharduten **elkarteen lana aitortzea** ere eskatzen dugu; **OSASUN-AKTIBOTZAT** har daitezela eta, hala diren heinean, osasun eta gizarte arloko profesionalek preskriba ditzatela.

Bukatzeko, **guztion erantzukizun eta elkartasuna** eskatu nahi dugu, salbuespenik eta aitzakiarik gabe, **PARADIGMA BERRI** batean oinarrituta **Konpromiso Sozialaren Eredu berria** eraikitzeke eta gurekiko eta gure gaixotasunekiko klixerik baztertzailerik eta bidegabeekin behingoz amaitzeko.

## 2023ko MAIATZAK 12



FM eta NKS NAZIOARTEKO EGUNA, 2023ko MANIFESTUA

